



ETIOPIA UTOPIA 02 KOADERNOA:

KONTSUMORAKO URA ETA ESKU-HARTZE SOZIO-SANITARIOA TIGRAYN, ETIOPIA

Fundación Etiopia Utopia Fundazioa Tikal (FEU) fundazioak 10 urte daramatza Etiopia iparraldeko Tigray eskualdean garapeneko eta lankidetzako proiektuak egiten. Duela 2 urtetik, tokiko bazkide berri batekin lan egiten du: **REST (Relief Society of Tigray)**; elkarte horrek 40 urte baino gehiago daramatza tokian bertan lan egiten, eta komunitateekin lotura handi-handia du. Urte hauetan, FEU eta REST elkarrekin **landa eremuetako biztanle ahulenen garapena lortzeko proiektuak burutu dituzte.**

Eskualdeko urrutiko landa eremuetan, **ez dute kalitatezko ura modu seguruan eskuratzeko aukerarik izaten**, dela ur-gorputzik gertu ez izateagatik, hala nola ibaiak edo urtegiak, dela lurpeko urik ez dagoelako, edo dela lurrazalean biltegitratutako ura ez delako kalitatezkoa, ezta segurua ere, aire zabalean eta kutsadura biologikoaren eraginpean dagoenez.

Ur eskasia horren edo segurua ez den ura izatearen ondorioz, komunitatean arazoak sortzen dira eta, batik bat, **herriar gazteen artean**. Horregatik, Fundazioak RESTekin batera egiten duen lanaren ardatzak dira giza kontsumorako ur seguruaren hornidura izatea, baldintza higienikoak hobetzea eta **ikasleen higiene gaitasunak indartzea.**

EURI URA BILTZEA (EURI URAREN UZTA)

Diniwade eta Tsawnet herrietako lehen hezkuntzako eskoletan arazo berdina dute: **ez dute urik ikasle eta irakasleentzat**. Horregatik, ingurunean baliabide hidrikorik ez dagoenez, putzuak zulatzeko aukerarik ez dutenez, presarik edo ibairik gertu ez dagoenez (putzu bat badago, baina eskolatik ordubete baino gehiagora), **euri uraz baliatzea erabaki dute.**



Proiektuaren hasieran, tangak eraikitzeke molde eta kofratuak nola garraiatu zen arazoa, bideak egoera txarrean zeudelako eta zaila zelako haraino iristea. Horretarako, **burdin zementuzko tangak eraikitzea** izan zen konponbidea, 60 m³-koak egiteko aukera ematen du eta. Teknika horrekin ez da molderik behar, ezta kofraturik ere, eta material guztiak errazago garraiatu daitezke, **obra in-situ egiteko**. Gutxi gorabehera, hilabete eta erdi behar dira eraikitzeke, eta eskualdean erabiltzen dituzten tanga tradizionalak egiteko 7 hilabete ere behar izaten dira.



Ura biltzeko sistemak kontuan izaten du urtean zenbat euri egiten duen, gutxi gorabehera 500 mm uztailean eta abuztuan, baina martxoan eta apirilean

ere zerbait botatzen du. Puntu horretan, azkeneko urteotan are nabariagoa da klima aldaketa: euria erratikoagoa da eta euri-sasoitik kanpo ere egiten du eta, beraz, zailagoa da noiz egingo duen aurreikustea.

Kontuan izan beharreko beste faktore bat bilketarako azalera da. Bi eskolen kasuan, ikasgelak bi barrakoitan daude, eta barrakoietako teilatuen azalera 300 m² da.

Etiopiako Hezkuntza Ministerioaren arauari jarraikiz, ikasleentzako egun bakoitzeko gutxieneko ur kopurua 3,1 litro da; beraz, **burdin zementuzko 60m³-ko bi tanga eraiki dira eskola bakoitzean**. Guztira 4 tanga. Ikasle bakoitzeko ur kopuru hori eskatzen denez, eta Diniwade-n 658 ikasle eta Tsawnet-en 429 ikasle daudela aintzat hartuta, ikasle guztientzako hornidura % 70ean bermatuta dago eskola egunetan Diniwade-n, eta % 100ean Tsawnet-eko eskolan.

Proiektua eraikitzeke fasean, **landa komunitatea aktiboki eta boluntarioki aritu zen** sistema eraikitzen. Lehenengo bi tangen kasuan, eskualdean teknika berria zenez, FEU fundazioko bi boluntariok jardun zuten buru-belarri lanean komunitateko kideekin, kontratatutako langile kalifikatuekin eta RESTeko langileekin batera, ezagutzak elkartrukatuz eta gaitasunak indartuz, burdin zementuzko eraikuntzari buruzko esperientzia guztia partekatzearen.

SODIS

Eskoletan arazoak izaten dira ura dela eta; izan ere, hainbat ikaslek etxetik eramaten dute ura eta liskarrak sortzen dira horregatik. Horrela, bada, **garrantzitsua da ura eskura izatea, baina ur hori edateko segurua izatea.**

Euri uraren “uzta” biltzeko sistemarekin, ura deposituetan biltegitratzen da baina tratatu egin behar izaten da segurua izateko. Bi herri horiek urruti daudenez eta bertara iristea zaila denez, **kloroa erabilia ura baldintza onetan izatea oso zaila eta garestia izaten da komunitatearentzat.**

Mantentze lan gehiegi ere ez izatearren, **desinfektatzeko SODIS metodoa ezarri dute.** Metodo horrekin, eguzkiaren izpi ultramoreak baliatzen dituzte ura

% 99,99 desinfektatzeko. Hori lortzeko, ura PET motako plastikozko botilatan sartu eta eguzkipean uzten dute, 6 orduz egun eguzkitsuetan, eta 12 orduz lainoak baldin badaude.



Sistema horretarako, **txapazko eta egurrezko egiturak eraiki dituzte eguzki aldera begira**, eta botilak egitura horietan sartzen dituzte, desinfektatzeko. Plastikozko botilak erosi eta garbitzen dituzte proiekturako; botila horiek arazo larriak eragiten dituzte hiriguneetan, hondakin moduan, baina eskoletako ikasleek berrerabili egiten dituzte. Botila horiek 6 hilean behin aldatzen dituzte, eta ordura arte erabilitakoak birziklatu egiten dira.

Proiektuaren fase horretan, **Juan Carlos I.a unibertsitateak tailer praktikoak ematen ditu han bertan**, eta SODIS teknikaren berri ematen die teknika baliatu eta zabaltzeko behar dutenei.

KOMUNAK

Higienea egokia izan dadin, komun seguruak izan behar dira, baldintza higieniko onargarrietan. Horregatik, **proiektuan bi bateria sanitario eraiki dira, bata mutilentzat eta bestea neskentzat**, eginkariak aire zabalean egin ez ditzaten.

Komun horiek VIP (Ventilated Improved Pit) motakoak dira, hau da, **lehorrak**, ez dute urik behar eta aireztatuta daude, usainik sor ez dadin eta euliak ugaltu ez daitezen.

Komunitatearen laguntzarekin eraiki dira komunak; hondeaketaz eta materialak biltzeaz arduratu dira, hala nola inguruko harriak, zimenduan erabiltzeko.



HILEKOAREN HIGIENEA MANEATZEA - HHM

Azpiegitura guztia martxan dagoelarik, kalitatezko hezkuntza lortze aldera, ezinbestekoa da ikasleek **ohitura osasungarriak eta higie egokia izatea**, osasun arazoak saihestearren.

Hilekoaren higienari bereziki erreparatzen zaio, eskualdean **nesken % 50 baino gehiago ez baitira eskolara joaten hilekoa dutenean**. Instalazio egokirik ez dutelako gertatzen da hori, higienarako eskura duten materiala oso urria delako eta, gainera, gai hori tabua

da eta lotsa ematen die; beraz, kasu gehienetan ez dute informaziorik eta prestakuntzarik jaso hilekoa dutenean nola jokatu behar duten jakiteko.

Proiektuaren bitartez, nesken kluba indartu da (neskentzako areto eta gune bat, horrelako gaiak lantzeko); berriazko prestakuntza ematen zaie, kontzientziatu egiten dira bai neskak, baita mutilak, irakasleak eta guraso elkarteak ere, hilekoa ikas-tetxeetan ez ezik, komunitateetan ere normaldu dadin.

Prestakuntzaren barruan, **plan bat gauzatzen da higie, oro har, bultzatzeko**; parte-hartzean oinarritutako tailerrak egiten dira Woredas-eko osasun bulegoko langileen gidaritzapean, mota horretako prestakuntza komunitarioak egiten esperientzia badutenez.



GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK



Proiektuan planteatutako helburuak bat datoz Garapen Iraunkorrerako honako Helburu hauekin:

3. eta 6. GIH Ur segurua oinarritzko premiak betetzeko adina lortzeko aukera izatea da osasuntsu egoteko baldintzetako bat. Gainera, eginkariak aire zabalean egitea saihestuko duen saneamendua izateak gaixotasunak eta kutsadura prebenitzen ditu.

4. GIH Hezkuntza garapenaren oinarri; horregatik, berebiziko garrantzia du eta kalitatezkoa izan behar du.

5. GIH Genero berdintasuna lortzea eta, horretarako, eskola ingurunea aintzat hartzea eskubideen subjektuak aitortzeko eta eraldatzeko gunea den aldetik; berdintasun hori lortzea lehentasuna da komunitate osoak garapen orekatua izateko.

9. GIH Proiektuan, **esperientziak partekatzen dira eta trebakuntza ematen da askotariko teknologien alderdiei buruz**, hala nola burdin zementuarekin eraikitzea; eta esperientzia eta trebakuntza hori komunitatearen beste proiektu batzuetara estrapolatu daiteke, edo tokiko administrazioen edo tokiko GKEaren proiektuetara.

10. GIH Komunitate osoa inplikatzeko denean eta, esaterako, ur eskasiaren arazoari aurre egiteko ahalmena ematen zaienean **bizi baldintzak hobetuta eta jasotzen den hezkuntzaren bitartez**, orduan, komunitatea ekitatiboagoa izan daiteke eta hirietarako exodo masiboa saihestu daiteke.



“Pobreziaren aurkako borrokan ingurumenaren kudeaketa esperientzien bitartez Gipuzkoako gizartea eraldatzeko. 2. Fasea” (GFA 2019 ERAL 016/01) proiektuaren hezkuntza materiala. Zabalketa Elkarteak eta Tau Fundazioak koordinatutako proiektua, Gipuzkoako Foru Aldundiak kofinantzatuta *“Pobreziaren Aurkako Ingurumen Iraunkortasunaren Nazioarteko Sarearen”* elkarlanaren esparruan.

Egileak: Etiopia Utopia Fundazioa Tikal eta Zabalketa Elkarteak

Argazkiak: Etiopia Utopia Fundazioa Tikal eta Vicente Ruiz Aguarón

Diseinua eta maketazioa: ad hoc Komunikazioa eta Marketina D.L. SS-691-2019

Etiopia Utopia Fundazioaren eta Zabalketaren webguneetan eskuragarri gaztelaraz eta euskaraz.

www.etiopiautopia.org www.zabalketa.org

